

DEMA – Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia

DEMA – Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento

Metalaren Sektoreko Enplegu-Prestakuntza Programan parte hartzen duten pertsona eta enpresentzako oinarriak, LABORLAN II: Lan-prestakuntza proiektuaren esparruan **45 urte edo gehiago dituzten** eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko laborategia, enplegu-prestakuntzako programa mistoen bidez. BIZKAIA AURRERA.

Bases para personas y empresas participantes en el Programa de Empleo-Formación en el **Sector del Metal dirigido a personas en desempleo que tengan una edad igual o superior a 45 años** dentro del marco del **Proyecto LABORLAN II**: Laboratorio para mejorar la empleabilidad de personas con dificultades de inserción mediante programas mixtos de empleo-formación. BIZKAIA AURRERA.

Indarrean dagoen araudia betez, **Metalaren Sektoreko** Enplegu-Prestakuntza Programan parte hartzen duten pertsona eta enpresentzako oinarriak argitaratu dira, LABORLAN II: Laborategia proiektuaren esparruan **45 urte edo gehiago dituzten eta langabezia** dauzen pertsonentzat, laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, enpleguko eta prestakuntzako programa mistoen bidez. BIZKAIA AURRERA.

En cumplimiento de la normativa vigente se procede a la publicación de las bases para personas y empresas participantes en el Programa de Empleo-Formación en el **Sector del Metal dirigido a personas en desempleo que tengan una edad igual o superior a 45 años** dentro del marco del Proyecto LABORLAN II: Laboratorio para mejorar la empleabilidad de personas con dificultades de inserción mediante programas mixtos de empleo-formación. BIZKAIA AURRERA.

Barakaldo, 2021eko otsailaren 10a.
DEMA-Enpresa Garapeneko gerentea.
María Victoria Riol Rojo

En Barakaldo, a 10 de marzo de 2021.
Directora-Gerente de DEMA-Enpresa Garapena.
María Victoria Riol Rojo

1.- Oinarriak:

COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun publikoaren krisiak ekarritako egoerak lan jardueraren jaitsiera nabarmena eragin du mundu osoan, Europan, baita hemen bertan ere. Hurbileko historian aurrekaririk ez duen krisi sozioekonomiko baten aurrean gaude.

Gaur egungo egoerak aparteko erantzun bat eskatzen du enpresa askoren itxierak eta ziurgabetasun globalak ekarritako behin-behineko baina muturreko egoera honen aurrean, zeinak bereziki eragin baitu herritarren enplegu tasan.

Testuinguru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak koronabirusaren krisiaren ondorengo aktibatze ekonomikorako larrialdiko plan bat diseinatu du Bizkaia aurrera! izeneko, eta programa hau horren barruan kokatzen da. Talka plan bat da, estimuluko, berriro ere abian jartzeko. Planak premiazko neurriak aurreikusten ditu, eta horietako bat **enplegu plan berezi bat** da,

1.- Fundamentos:

La situación generada por la crisis de salud pública consecuencia de la pandemia del COVID-19 ha provocado un desplome severo de la actividad laboral a nivel mundial, europeo y también local. Nos encontramos ante una crisis socio económica sin precedentes en la historia reciente.

La presente situación exige una respuesta excepcional a las presentes circunstancias temporales pero extremas, acarreadas por el cierre de numerosas empresas y una incertidumbre global que tiene especial efecto en la tasa de empleo de la ciudadanía.

En este contexto, el presente programa forma parte de un plan urgente de reactivación económica tras la crisis del coronavirus denominado Bizkaia aurrera! de la Diputación Foral de Bizkaia. Un plan de choque, de estímulo, para reemprender la marcha. Es un plan que contempla medidas urgentes, y entre ellas, un **plan para**

lanpostuak mantentzen laguntzeko eta langabetuen kontratazioa pizteko, eta horren barruan kokatzen da, hain zuzen, "LABORLAN II: Laneratze arazoak dituzten pertsonen enplegarritasuna enplegu-prestakuntza programa mistoen bidez hobetzeko laborategia" proiektua (aurrerantzean, **LABORLAN II**).

DEMA Enpresa Garapenaren (aurrerantzean DEMA) helburua da, oro har, beharrezkoak diren jardura guztiak egitea, norberaren eta besteen konturako enpleguari lotutako era guztietako programak abian jartzeko eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan eta gizarte zerbitzuetako kolektiboen laneratzea lortzeko.

Orain arte esandakoa kontuan hartuta, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak dirulaguntza bat eman dio DEMari, «Laneratze arazoak dituzten pertsonen enplegarritasuna enplegu-prestakuntza programa mistoen bidez hobetzeko laborategia» izeneko proiektu berritzailea egiteko.

Laborategi proiektuak, DEMAk lideratzen duenak, behar-beharrezkoa du gizarte eragile adierazgarrien eta enplegu eta prestakuntza proiektuen garapenean espezializatutako erakunde lankidetzaz; erakunde eta eragile horiek esperientzia eta emaitzak egiaztatu ahal izango dituzte, kaudimen teknikoa eta ekonomikoa izango dute, ekonomia sektore eta jardun eremu guztiak ordezkatuko dituzte, eta harremanen sare bat, baliabideak, azpiegiturak, metodologiak eta kudeatzeko gaitasuna izango dute.

LABORLAN II proiektua hainbat jardura-lerrotan dago zatituta, eta horietako bat enplegu-prestakuntza programa bat da, **Urbegi Gizarteratzea, irabazi asmorik gabeko erakundearen lankidetzaz egingo dena (URBEGI)**. Erakunde horren xedea Bizkaiko Lurralde Historikoan gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak sustatzea da, eta eragile gakoak da, sektorearen beharrak hautemateko eta profil eta gaitasun profesionalen eskaintzaren eta eskariaren arteko egokitzapena errazteko.

2.- Helburuak:

Programak bi helburu izango ditu:

1.- Parte hartzaileen enplegarritasuna areagotzea, haien laneratzea erraztuz eta beharrezkoak diren gaitasunak

la defensa del empleo para ayudar a mantener los puestos de trabajo e incentivar la contratación de personas desempleadas, en el que se enmarca el Proyecto LABORLAN II: Laboratorio para mejorar la empleabilidad de personas con dificultades de inserción mediante programas mixtos de empleo-formación, en adelante **LABORLAN II**.

DEMA - Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento (en adelante DEMA) tiene entre sus objetivos la realización de las actividades necesarias para la gestión de la puesta en marcha y ejecución de todo tipo de programas relacionados con el empleo por cuenta ajena y propia, así como la inserción laboral de colectivos en riesgo de exclusión social.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia ha otorgado a DEMA una subvención para la realización de un innovador proyecto denominado «Laboratorio para mejorar la empleabilidad de personas con dificultades de inserción mediante programas mixtos de empleo-formación».

Este proyecto Laboratorio, liderado por DEMA, necesita de la colaboración con los agentes sociales representativos, entidades especializadas en el desarrollo de proyectos de empleo y formación que puedan acreditar su experiencia y resultados, que dispongan de solvencia técnica y económica, que sean representativas de los diferentes sectores económicos o ámbitos de actuación, y que cuenten con red de relaciones, recursos, infraestructuras, metodologías y capacidad de gestión.

El Proyecto LABORLAN II está dividido en diferentes líneas de actuación, consistiendo una de ellas en un programa de empleo-formación en colaboración con **Urbegi Inserción, entidad sin ánimo de lucro que tiene por objeto la promoción de las personas con especiales dificultades de inserción en el Territorio Histórico de Bizkaia (URBEGI)** y agente clave para detectar las necesidades de su sector y facilitar el ajuste entre oferta y demanda de perfiles y competencias profesionales.

2.- Objetivos:

El objetivo del programa será doble:

1.-Aumentar la empleabilidad de las personas participantes, facilitando su inserción laboral, dotándoles

emanen (teknikoak, pertsonalak eta esperientzia) **sektore industrialean, elektrikoan eta areonautikoan** eskaera handia duen lanbide batean aritzeko.

2.- **Metalaren sektoreko (industrial, elektrikoa eta areonautikoa)** enpresen lehiakortasuna hobetzea, gaitasun profesionalak gaurko eta etorkizuneko eskaeretara egokituz eta **enplegua sortzeko eta berreskuratzeko prozesuan dagoen sektore bat mantenduz.**

3.- Programaren deskribapena:

Bi helburu horiek lortzeko planteatzen da enplegu-prestakuntza programa hau planteatzen da, hain zuzen, eta horretarako **langabezia dauden pertsonak aukeratuko dira;** eta prestakuntzaren, akonpainamenduaren eta lan kontratu batez jasoko duten lan esperientziaren bidez pertsona horiek beren enplegagarritasuna hobetu, eta lan merkatu arruntean sartzea lortuko dute.

Programa hiru zutabetan banatzen da:

1.- **PRESTAKUNTZA:** Programa hasteko, 130 orduko prestakuntza fase tekniko bat egingo da, eta beste 50 ordu gehiago emango dira, gaitasun profesionalak eta enplegua bilatzeko aktibazioa lantzeko.

Prestakuntza fase horretan (I. fasea) parte hartu ahal izateko, baldintza batzuk beteta proiektura hobeto egokitzen **diren 15 pertsona** aukeratuko dira gehienez ere. Horrez gain, **2 pertsona** gehiago hautatu ahal izango dira erreserba modura, eta prestakuntza egiteko eskubidea izango dute.

2.- **LANEKO ESPERIENTZIA:** Programaren bigarren fasean, parte hartzaileek lan esperientzia bat izango dute Bizkaian kokatutako **metalaren sektoreko (industrial, elektrikoa eta aeronautikoa) enpresetan,** jasotako prestakuntza praktikan jartzeko eta lanbidean lan esperientzia erreal bat eskuratzeko.

Lan esperientziaren fase honetan (II. fasea) gehienez ere **15 pertsona** sartuko dira, **eta prestakuntza faseari etekin handiena atera dioten pertsonak lehenetsiko dira** (prestakuntza arduradunaren irizpidearen baitan).

de las competencias necesarias (técnicas, personales y de experiencia) para abrirse camino en un oficio con alta demanda en el **sector del metal (industrial, electrónico y aeronáutico).**

2.-Mejorar la competitividad de las empresas del **sector del metal (industrial, eléctrico y aeronáutico),** ajustando las competencias profesionales a sus requerimientos actuales y futuros, facilitando el **mantenimiento de un sector en proceso de recuperación y creación de empleo.**

3.- Descripción del programa:

Para lograr ese doble objetivo se plantea el presente programa de empleo formación para el que se **seleccionarán personas en situación de desempleo,** quienes a través de la formación, el acompañamiento y la experiencia profesional que adquieran a través de un contrato de trabajo, mejoren su empleabilidad y logren su inserción en el mercado laboral ordinario.

El programa se divide en tres pilares:

1.- **FORMACIÓN:** El programa comenzará con una fase formativa técnica de 130 horas de duración, a las que se suman 50 horas en competencias profesionales y activación para la búsqueda de empleo.

Para participar en esta fase formativa (Fase I) se seleccionará un máximo de **15 personas** que cumpliendo los requisitos mejor encajen en el proyecto. Además, se podrán seleccionar hasta **2 personas** más como reservas, que tendrán derecho a realizar la formación.

2.- **EXPERIENCIA PROFESIONAL:** La segunda fase del programa consiste en una experiencia profesional en empresas del **sector del metal (industrial, eléctrico y aeronáutico)** ubicadas en Bizkaia para que pongan en práctica la formación recibida y adquieran experiencia real de trabajo en el oficio.

A esta fase de experiencia profesional (Fase II) accederá un máximo de **15 personas, priorizando a aquellas personas que mejor aprovechamiento demuestren de la fase formativa** (a criterio de las personas responsables de la formación).

3.- AKONPAINAMENDU INTEGRALA: Ibilbidean parte hartzaileek tutoreen laguntza eta akonpainamendua izango dute, hala prestakuntzan nola kontratazioan. Tutore horiek ibilbidean orientatuko dituzte, eta laguntza eskainiko diete helburu profesionala eta etorkizuneko aukerak ikusteko eta bidean topa ditzaketen oztopoak aurreikusten eta saihesten ikasteko. Era berean, parte hartzaileek enplegurako gaitasunen eta trebetasunen inguruko prestakuntza jasoko dute.

4.- Hartzaileak:

Parte hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 45 urte edo gehiago izatea.
- Langabezian egotea.
- Bizkaian erroldatuta egotea.
- Oinarrizko prestakuntza egiaztatzea (ez dira eskatzen aldeaz aurreko ezagutzak) eta **metalaren sektorean (industrial, elektrikoa eta/edo aeronautikoa)** lan egin nahi izatea.
- Metalaren sektorean (**industrial, elektrikoa eta/edo aeronautikoa**) izandako esperientzia eta txandaka lan egiteko prestasuna baloratuko dira, baita talde lanean aritzeko gaitasuna, arazoak konpontzeko gaitasuna eta erantzukizuna ere
- Hala behar bada, Lan Baimena aurkeztea

Lehenetsuna izango dute:

1. COVID-19ak sortutako krisiaren ondorioz langabezian geratu diren pertsonak.
2. Emakumeak.
3. Iraupen luzeko langabeak (12 hilabete baino gehiago).

5.- Exekuzio faseak eta epeak:

I. fasea. Hasierako prestakuntza: Prestakuntza edukiak jarraian zehaztutakoak izango dira, eta **2021eko maiatzean eta ekainean** emango dira, **egunean 6 orduz**.

LEKUA: Balmaseda. El Paramo industrialdea, B7 pabiloia.

METALAREN SEKTORERAKO (INDUSTRIALA, ELEKTRIKOA ETA AERONAUTIKOA) PEOI

3.-ACOMPANAMIENTO INTEGRAL: En el itinerario las personas participantes contarán con el apoyo y acompañamiento de tutores/as durante la formación y durante la contratación, que les orientarán en su avance, y les ayudarán a visualizar su objetivo profesional, posibilidades futuras, y a cómo prevenir o abordar los obstáculos que puedan aparecer. Asimismo, las personas participantes serán instruidas en competencias y habilidades para el empleo.

4.- Personas destinatarias:

Las personas participantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Tener edad igual o superior a 45 años.
- Estar en situación de desempleo.
- Tener empadronamiento en Bizkaia.
- Acreditar formación básica (no se requieren conocimientos previos) y querer forjarse una profesión en el **sector del metal (industrial, eléctrico y/o aeronáutico)**.
- Se valorará la experiencia en puestos de trabajo en el sector del metal (**industrial, eléctrico y aeronáutico**) y la disponibilidad para trabajar a turnos, así como la capacidad para el trabajo en equipo, capacidad de resolución de problemas y responsabilidad.
- En su caso, aportar Permiso de Trabajo.

Tendrán prioridad:

1. Personas que han quedado en desempleo como consecuencia de la crisis generada por el COVID-19.
2. Mujeres.
3. Personas desempleadas de larga duración (más de 12 meses).

5.- Fases y plazos de ejecución:

Fase I. Formación inicial: Los contenidos formativos serán los que se detallan a continuación y se impartirán durante los meses de **mayo y junio 2021** a razón de **6 horas al día**.

LUGAR: Balmaseda. Polígono Industrial El Páramo, pabellón B7.

CURSO DE PEÓN ESPECIALISTA PARA EL SECTOR DEL METAL (INDUSTRIAL, ELÉCTRICO Y AERONÁUTICO).

ESPEZIALISTAKO IKASTAROA. (130 h.)

1.- Urbegi-Urbegi Gizarteratzea taldearen aurkezpena: agian bisitak egingo dira instalazioetara.

2.- Laneko Arriskuen Prebentzioa. LAPen barruan, industria jardueraren alderdi orokorra eta lanpostuari lotutako alderdi espezifikoak landuko dira. COVID protokoloa.

3.- Orga altxatzaileak eta kargak mugitzeko beste sistema batzuk erabiltzeari buruzko zati espezifikoak, errealitate birtualeko simulagailuarekin.

4.- Industria jarduera: kalitatea «versus» produktibitatea. Taldeko lana. Mantenimendua, ordena eta garbitasuna lanpostuan.

5.- Lanpostuari buruzko prestakuntza teorikoa. Barne arauak, prozedurak eta jarraibideak.

6.- Prestakuntza praktikoa lanpostuan: ikaskuntza lanpostuan zereginen bisualizazioaren bidez.

Prestakuntzak iraun bitartean, parte hartzaileak egunero bere bitartekoen bidez joan beharko du saioen lekura, ezarritako ordutegietan eta behar besteko puntualtasunez, edo, bestela, telematikoki konektatu beharko da.

Parte hartzaileei hilabete bakoitzean programatutako ordu guztien % 75ean parte hartzeko eskatzen zaie, justifikatutako arrazoiren bat ematen denean izan ezik; salbuespena Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko zati espezifikoak izango da, non % 100eko parte hartzea eskatuko baita gaikuntza lortu ahal izateko.

II. fasea. Lan esperientzia: Bizkaian kokatutako sektoreko enpresetan praktikan jarriko da prestakuntzan ikasitakoa, **aldi baterako eta lanaldi osoko lan kontratu batez, metalaren sektoreko peoi espezialista gisa eta 3 hilabetez gehienez ere. (2021eko maiatza eta urria bitartean gutxi gorabehera)**

6.- Programaren hartzaileak hautatzea:

Parte hartzeko eskaerak jasotzeko epea:
2021/03/21aren 23:59ak arte.

(130 h.)

1.- Presentación de grupo Urbegi-Urbegi Inserción: puede incluir visitas a diferentes instalaciones.

2.- Prevención de Riesgos Laborales. Parte general de PRL de la actividad industrial en general y parte específica relacionada con el puesto de trabajo. Protocolo COVID.

3.- Parte específica en el manejo de carretillas elevadoras u otros sistemas de movilidad de cargas con simulador de realidad virtual.

4.- La actividad industrial: calidad "versus" productividad. Trabajo en equipo. Mantenimiento, orden y limpieza en el puesto de trabajo.

5.- Formación teórica sobre el puesto de trabajo. Normas internas, Procedimientos, Instrucciones.

6.- Formación práctica en el puesto de trabajo: aprendizaje en puesto mediante visualización de las tareas.

Durante el desarrollo de la formación, la persona participante tiene la obligación de acudir diariamente, por sus propios medios, al lugar de impartición, en los horarios establecidos con la debida puntualidad o, en su caso, de conectarse telemáticamente.

Se exige a las personas participantes una asistencia mínima mensual del 75% del total de horas programadas para ese mes, salvo causa justificada. No obstante, para la parte específica de Prevención de Riesgos Laborales la asistencia deberá ser del 100% para obtener la capacitación.

Fase II. Experiencia profesional: en empresas del sector ubicadas en Bizkaia para la puesta en práctica de lo aprendido durante la formación, mediante un **contrato de trabajo temporal a jornada completa** como **peón especialista para el sector del metal hasta un máximo de 3 meses.** (Orientativamente entre **junio y octubre 2021**).

6.- Selección de personas destinatarias del Programa:

Plazo para recibir solicitudes de participación:
Hasta el 21/03/2021 a las 23:59 h.

Eskaerak aurkezteko modua:

Izena emateko eskaera telematikoki egingo da soilik, Curriculum Vitae erantsita, helbide honetan: <http://www.dema.eus/forms/metal45.php>

Programara sartzeko aukeraketa prozesua:

1.- Aurre-aukeraketa: oinarri hauen 4. puntuari jasotako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzea.

2.- Curriculum Vitaeren balorazioa: sektoreari lotutako prestakuntza eta esperientzia baloratuko dira, erakunde kolaboratzailearen eskakizunak aintzat hartuta.

3.- Elkarrizketa pertsonala.

4.- Komunikazioa: balorazio txostena ikusita, eskaerak hautapen prozesuaren arduradunek hartutako erabakien bidez ebatziko dira. Ebazpena posta elektronikoz eta telefonoz jakinaraziko zaie hautatutako pertsonari.

5.- Ebazteko epea hilabete batekoa izango da gehienez ere, eskaera epearen hasierako datatik zenbatzen hasita, eta epe hori igaro ondoren erantzun ez diren eskaerak ezeztatutzat hartuko dira.

7.- Esperientzia profesionalerako II. fasean parte hartzaileak hartuko dituzten enpresak hautatzea

Xedea:

Parte hartzaileen akonpainamendua eta ikaskuntza praktikoaren tutoretza, **metaleko sektorean (industrial, elektrikoa eta aeronautikoa) aritzeko peoi espezialista** lanpostuan.

Plaza kopurua: 15

Zenbateko ekonomikoa (BEZ kanpo): 5.456 €-ra arte postuko.

Gauzatzeko epea: 2021/10/31ra arte.

Programara sartzea:

Parte hartzaile batek edo batzuek lan esperientziari dagokion programaren II. fasea egiteko hartuta programan lagundu nahi duten enpresek beren hautagaitza aurkeztu beharko dute, oinarri hauetan adierazitako epean eta moduan.

Forma de presentación de solicitudes:

La solicitud de inscripción se hará telemáticamente, adjuntando Curriculum Vitae en la dirección: <http://www.dema.eus/forms/metal45.php>

Proceso de selección de acceso al programa:

1.- Preselección: comprobación del cumplimiento de todos los requisitos, recogidos en el punto 4 de las presentes bases.

2.- Valoración del Curriculum Vitae: se valorará la formación y experiencia en el sector, adecuado a los requerimientos de la entidad colaboradora.

3.- Entrevista personal.

4.- Comunicación: a la vista del informe de valoración, las solicitudes serán resueltas mediante decisión adoptada por la/s persona/s responsable/s del proceso de selección. La resolución se comunicará mediante correo electrónico y teléfono a las personas seleccionadas.

5.- El plazo máximo para resolver será un mes desde la fecha final fijada como plazo de solicitud, transcurrido el cual se entenderán desestimadas aquellas solicitudes que no hayan recibido respuesta.

7.- Convocatoria de empresas que acogerán a participantes en la fase II de la experiencia profesional:

Objeto:

Acompañamiento y tutorización del aprendizaje práctico de participantes en el puesto de **peón especialista para el sector del metal (industrial, eléctrico y aeronáutico)**.

Nº de plazas: 15

Importe económico (IVA excluido): Hasta 5.456 €/puesto.

Plazo de ejecución: Hasta 31/10/2021.

Acceso al programa:

Las empresas que quieran colaborar con el programa acogiendo a una o varias personas participantes para que realicen en su empresa la fase II de experiencia profesional, deberán presentar su candidatura en el plazo y forma recogidos en estas bases.

Proposamena aztertu, elkarrizketa bat egin, eta enpresaren proposamena onartu edo baztertu da, eskaeren sarrera ordenaren arabera, baldin eta aurkeztutako proposamenak nahikoa kalitatea badu bete beharreko postuari, egin beharreko lanari eta parte hartzaileen tutoretzari dagokienez, haien onurei begira.

15 plaza daude betetzeko. Enpresa bakoitzak 2 parte hartzaile hartuko ditu. Edonola ere, 15 plaza betetzeko adina enpresa aurkezten ez badira, enpresako bi kontratu baino gehiago egin ahal izango dira, 15 plazak bete arte.

Enpresak hartzeko oinarrizko baldintzak:

- Bizkaian kokatua egotea.
- Metalaren sektorea (industrial, elektrikoa eta aeronautikoa).

Parte hartzeko eskaerak jasotzeko epea:

II. fasea hasten den arte.

Eskaerak aurkezteko modua:

Izena emateko eskaera telematikoki egingo da helbide honetan:

<http://www.dema.eus/forms/empresasmetal45.php>

Se revisará la propuesta, realizará entrevista y aprobará o rechazará la propuesta de la empresa por orden de entrada de las solicitudes, siempre que se presente una propuesta con suficiente calidad del puesto a cubrir, tareas a desempeñar y tutorización de la persona participante, buscando su beneficio.

Existen 15 plazas a cubrir. Cada empresa podrá acoger a 2 personas participantes. No obstante, en el caso de que no se presenten suficientes empresas para cubrir las 15 plazas, podrá superarse el número de 2 contratos por empresa, hasta cubrir las 15 vacantes.

Requisitos básicos de acceso de las empresas:

- Ubicación en Bizkaia.
- Sector metal (industrial, eléctrico y aeronáutico)

Plazo para recibir solicitudes de participación:

Hasta la fecha de inicio de la fase II.

Forma de presentación de solicitudes:

La solicitud de inscripción se hará telemáticamente en la dirección:

<http://www.dema.eus/forms/empresasmetal45.php>